

ZER DA ZG PRO 2025?

ZG PRO Zinegoak Nazioarteko LGTBIQ+ Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren industria-programa da. Bost edizio daramatzagu LGTBIQ+ zinemaren eta haren sorkuntzan, ekoizpenean eta banaketan parte hartzen dutenen ikusgaitasuna eta sustapena lantzen, ikus-entzunezkoen eta kulturaren bitartez eraldaketa soziala eragiteko premisari jarraituz.

Industria-esparrua hiru helbururen inguruan antolatzen da: ikus-entzunezko heziketa eta sexu-, identitate- eta genero-aniztasuna; audientzien garapena, master classen eta tailerren bidez, Bizkaiko zinema-eskolekin eta UPV/EHUrekin elkarlanean; eta martxan dauden LGTBIQ+ proiektuen sustapena, ZG PRO LAB laborategiaren bitartez.

Laborategi honen egitasmoa profesionalen eskari batetik sortu zen, beharrezkotzat jotzen baitzuten ekoizten ari zen queer zinema sustatzeko esparru espezifikoa izatea. Zinema bat non beste errealitate batzuk eta gure ingurunearekin erlazionatzeko eta adierazteko moduen aldaketak islatzen diren, ikus-entzunezko industria, audientziak eta jaialdiak ere tartean sartuta.

Alde horretatik, laborategiaren esparruak badu beste jaialdi batzuen sostengua: Europako hegoaldeko LGTBIQ+ jaialdien sarea, Queer Lisboa eta Queer Porto, Mix Milano, Parisko Chéries-Chéris, Tesalonikako G.L.A.D. eta Zinegoak elkartu egin dira, queer zinemarako esparruak elkarrekin garatzeko sare bat sortzea helburu.

Eta Estatuko LGTBIQ+ Laborategien Sarea, FIRE!! Bartzelonako LGTBI Zinemaren Erakusketak eta Fundación Trianguloren laborategi ezberdinek (Lesgaicinemad, Cinhomo, Fancinegayqueer, Andalesgai) osatua. Aurten goian aipatu berriek, Zinegoakekin batera eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin, lehen lankidetzara abiatu dute. Horrela, SSIFFekin lankidetzan eta bigarren urtez jarraian, ZG PRO Industry SSIFF saria indarrean dugu. Honen bidez, SSIFFeko industria foroetan presentzia, partehartzea eta sarbidea bermatzeko, industria-akreditazio, egonaldi- eta bidaiak- gastuen estaldura eskaintzen dugu.

Zinegoakek hitzarmen horiek guztiak ezartzen ditu, estatuko eta nazioarteko queer zinemarako espazioen garapen komuna bultzatzen duten sareak sortzeko helburuarekin. 2025eko ZG PRO LAB esparrua INCOPRODUCTION plataformaren bidez kudeatuko da. Parte hartu nahi duten proiektuek, beraz, plataforma horretan eman beharko dute izena. Gero, pitching formatuan aurkeztuko dira hautatutako proiektuak jaialdiko egun batean.

Halaber, sektorean espezializatuta dauden 3 epaimahaikideekin banakako 3 saio izango dituzte eta masterclass jardunaldi bat beren ekoizpenen garapenerako baliagarri gerta dakizkiekenak. Denera bi saio lirarteke, ekainaren 27 eta 28an ospatuko direnak.

ZG PRO LAB 2025en PARTE-HARTZEA

ZG PRO LAB 2025en parte hartu dezakete:

- Garatzen ari diren film ertain edo luzeen proiektuak, hasierako fasean daudenak, gidoiaren lehen bertsioa eta proiektuaren dossierra dutenak.
- Postprodukzioan dauden film ertain edo luzeen proiektuak: fase aurreratuan dauden obrak (filmatzen hasiak, muntatzen ari direnak, etab.).

ZG PRO-M PARTE HARTZEN DUTEN PROIEKTUEK HONAKO OINARRI HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE:

- LGTBIQ+ gaiei buruzko lanak izatea.
- Garapen, produkzio- edo postprodukzio-fasean egotea.
- Espainiako estatuan bizi diren errealizadoreak eta ikus-entzunezko enpresak izatea, 18 urtetik gorakoak.
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari.

Produkzio-fasean dauden proiektuak:

- Fitxa teknikoa
- Sinopsi labur bat eta teaser-a (azkena posible bada soilik)
- Espainiako estatuan bizi diren ikus-entzunezko errealizadoreak izatea, 18 urtetik gorakoak.
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari.
- Gaztelaniaz edota euskaraz aurkeztu behar da materiala.

Postprodukzio-fasean dauden proiektuek izan beharrekoak:

- Fitxa teknikoa
- Sinopsia
- Teaser-a (10-15 min gehienez ere).
- Espainiako estatuan bizi diren ikus-entzunezko errealizadoreak izatea
- 18 urtetik gorakoak izatea
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari
- Gaztelaniaz edota euskaraz aurkeztu behar da materiala

Izena emateko epea: apirilaren 15etik maiatzaren 19ra arte (00:00).

SARIAK:

Deialdian aurkezten diren proiektuetatik gehienez ere 6 hautatuko dira, eta bi sari irabazteko lehiatuko dira:

- **ZG PRO LABORATEGIA saria:** 1.000 €. Zinegoak taldeak ematen du, eta sektoreko profesionalak osatutako epaimahaiak erabakitzen du (*1).
- **ZG PRO Music Library:** ZG PRO saria AudioNetwork eta AltMusic ekoizpen-katalogoetan eta 360° musika-ikuskaritzako zerbitzuetan sartzeko tarifa finko bat izango da. Horrez gain, saridunak deskontuak izango ditu musika komertzialen eskubideak negoziatzeko karguetan eta estudio eta SFX horniduretan, 1.500 €-raino.
- **ZG PRO Industry SSIFF saria:** bidaiia-poltsa bat da, SSIFFen bi egunez egin beharreko joan-etorriei, egonaldiari eta mantenuari dagozkiona, bai eta industriaren akreditazioari buruzkoa ere, eta bileren agenda bat ikus-entzunezko industriako hainbat ekoiztetxe eta eragilerekina. Espainiako Estatuko LGTBIQ+ laborategi-sareak Donostiako Nazioarteko SSIFF Zinemaldiarekin lankidetzan garatutako ekimena da. Sektoreko hainbat profesionalak osatutako epaimahaiak ematen du.

(*1). Saria banku-transferentzia izendunaren bidez ordainduko da 2025eko laugarren hiruhilekoan. Banatzaileari, ekoiztetxeari eta/edo zuzendaritzari sariaren berri eman ondoren, hark eskatutako dokumentu eta datuak bidali beharko dizkio erakundeari. Gehienez ere 9 hilabeteko epean jasotzen ez badira, edozein zenbateko erreklamatzeko eskubidea galduko da.

PROIEKTU BAT AURKEZTEAK ARAU GUZTIOK ETA ANTOLAKUNTZAK EZUSTEKOEN AURREAN HARTZEN DITUEN ERABAKI GUZTIAK ONARTZEA DAKAR.

Deialdiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: zgpro@zinegoak.com. Plataformari buruzko zalantza teknikoak edo gorabeherak argitzeko: info@incoproduction.com.